**BASES PROGRAMA DENDA NAIZ – SOY COMERCIO 2019 (IV EDICIÓN)**
**DENDA NAIZ – SOY COMERCIO 2019 (IV. EDIZIOA) PROGRAMAREN OINARRIAK**

| | |
|---|---|
| **PRIMERA: Objeto**<br><br>Denda Naiz – Soy Comercio es un programa impulsado por el Ayuntamiento de Pamplona en colaboración con la sociedad pública Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra (CEIN). Su objetivo es incentivar la creación de empresas relacionadas con el ámbito comercial, mediante el apoyo a personas emprendedoras que tengan una idea de negocio y se comprometan a su puesta en marcha en la ciudad de Pamplona.<br><br>Los proyectos seleccionados para participar en el programa Denda Naiz - Soy Comercio disfrutarán de un programa específico de aceleración comercial donde además desarrollarán sus competencias emprendedoras y contarán con tutorías individuales tanto de técnicos de CEIN como de profesionales del sector.<br><br>El objetivo principal de este proceso consiste en apoyar el desarrollo de cada proyecto participante para crear un negocio viable y con garantías de éxito.<br><br>**SEGUNDA: Proyectos empresariales objeto del programa**<br><br>▪ Ideas de negocio ligadas a un espacio físico que alberguen actividad comercial con intención de puesta en marcha en término municipal de Pamplona.<br>▪ Se primarán aquellas ideas que además impulsen la innovación y la mejora del tejido urbano comercial.<br>▪ Se primarán aquellas ideas que además respondan a las necesidades y las tendencias comerciales ciudadanas. | **LEHENA: Xedea**<br><br>Iruñeko Udalak CEIN Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroarekin elkarlanean bultzatzen duen programa bat da *Denda Naiz – Soy Comercio*.<br>Xede dauka merkataritzaren inguruko enpresen sorkuntza sustatzea, laguntzak emanez negozio-ideia bat eduki eta Iruñean abiarazteko konpromisoa hartzen duten ekintzaileei.<br><br>*Denda Naiz - Soy Comercio* ekimenean parte hartzeko hautatu diren proiektuek aukera izanen dute programa zehatz batez baliatzeko, beren enpresa-proposamena azkartze aldera; programa horretan, halaber, gaitasun ekintzaileak garatu eta CEINeko teknikarien zein sektoreko profesionalen banakako tutoretzen babesa jasoko dute.<br><br>Prozesu horren helburu nagusia da programan parte hartzen duen proiektu bakoitzaren garapena babestea, negozio bideragarriak, arrakasta-bermeaz, sortzeko.<br><br>**BIGARRENA: Programaren xede diren enpresa-proiektuak**<br><br>▪ Negozio-ideiak, Iruñeko udal-mugartean merkataritza-jarduera bat garatzen duen gune fisiko bati lotuak.<br>▪ Lehentasuna emanen zaie hiriko merkataritza-ehuna berritu eta hobetzea sustatzen duten ideiei.<br>▪ Lehentasuna emanen zaie herritarren merkataritza-beharrak eta joerak asetzea xede duten ideiei. |

| | |
|---|---|
| **TERCERA: Calendario y lugar** | **HIRUGARRENA: Egutegia eta lekua** |
| El proceso formativo comenzará el 11 de marzo y finalizará el 14 de junio de 2019. Se desarrollará a través de dos sesiones formativas por semana, complementándose con otras acciones en función de las necesidades del programa.<br>Todas las personas participantes en el programa contarán de antemano con un calendario detallado de las actividades del mismo.<br>El programa se desarrollará en la oficina de CEIN de C/ Leyre nº 20 (Pamplona). | Prestakuntza-prozesua 2019ko martxoaren 11n hasiko da eta ekainaren 14an bukatuko. Bi prestakuntza-saio eginen dira astean, eta horiek jarduketa batzuekin ere osatuko dira, programaren beharrekin bat.<br>Programan parte hartzen duten guztiek programak barne hartzen dituen jardueren egutegi zehatza izanen dute aldez aurretik.<br>Programa CEINen bulegoan eginen da (Leire kalea, 20, Iruña). |
| **CUARTA: Beneficiarios** | **LAUGARRENA: Onuradunak** |
| El proceso formativo de Denda Naiz- Soy Comercio está dirigido a personas emprendedoras con ideas de negocio ligadas a un espacio físico que alberguen actividad comercial y con intención de puesta en marcha en término municipal de Pamplona. Personas que tengan una idea de negocio o una propuesta innovadora comprometidas en dedicar un tiempo a su desarrollo y testeo antes de su lanzamiento. | Denda Naiz-Soy Comercioren prestakuntza-prozesua ekintzaile diren pertsonei dago zuzendurik; horiek merkataritza-jarduera bat garatzen duen gune fisiko bati lotutako negozio-ideiak eduki beharko dituzte, eta Iruñeko udal-mugartean abiatzeko asmoa. Gainera, negozio-ideia edo proposamen berritzaileren bat eduki beharko dute, eta ideia hori merkaturatu aurretik garatu eta testatzeko prest egon. |
| **QUINTA: Requisitos de las personas solicitantes** | **BOSGARRENA: Eskatzaileen betekizunak** |
| Para obtener la condición de beneficiario los solicitantes deberán ser personas mayores de 18 años con una idea de negocio ligada a un espacio físico que albergue actividad comercial y con intención de puesta en marcha en término municipal de Pamplona. | Onuradun izateko, 18 urtetik gorakoa izan behar da, negozio-ideia bat eduki, merkataritza-jarduera bat garatzen duen gune fisiko bati lotua, eta hura Iruñeko udal-mugartean abiatzekoa asmoa. |
| **SEXTA: Obligaciones de las personas candidatas** | **SEIGARRENA: Izangaien betebeharrak** |
| Las personas promotoras de los proyectos deberán cumplir las siguientes obligaciones:<br>▪ Prestar la dedicación exigida por el programa para la maduración del proyecto en el periodo de aceleración empresarial | Proiektuen sustatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:<br>▪ Enpresa azkartzeko fasean, 2019ko ekainaren 14an amaitzen dena, behar beste denbora eskaini beharko diete proiektua |

| | |
|---|---|
| que finaliza el 14 de junio de 2019.<br>▪ Asistencia a todas las jornadas formativas, tutorías y acciones del programa y realización del plan de trabajo marcado en el programa, cumpliendo los hitos establecidos para cada proyecto empresarial.<br>▪ Participar en todas aquellas reuniones establecidas por el tutor con el objetivo de facilitar el adecuado desarrollo empresarial poniendo a su disposición cuanta información y documentación sea requerida.<br>▪ Tras el testeo de la viabilidad de la idea de negocio, éste deberá implantarse en Pamplona. | landu eta heltzeko lanei.<br>▪ Programak barne hartzen dituen prestakuntza-jardunaldi, tutoretza-saio eta ekintza guztietara joan beharko dute eta programak agindutako plangintza garatu, betiere enpresa-proiektu bakoitzean ezarritako helburuak erdietsita.<br>▪ Tutoreak ezartzen dituen bilera orotara joan beharko dute, enpresa modu egokian garatze aldera, eta tutoreak galdatzen dituen informazio eta agiriak haren eskura jarriko dituzte.<br>▪ Negozio-ideia bideragarria dela testatu ondoren, hura Iruñean ezarri beharko da. |
| **SÉPTIMA: Solicitudes, plazo y procedimiento de candidaturas** | **ZAZPIGARRENA: Eskabideak, epeak eta hautagaitzen inguruko prozedura** |
| ▪ El plazo para la presentación de las solicitudes comenzará el 8 de febrero y finalizará el 28 de febrero de 2019.<br>▪ El formulario de la solicitud (Anexo I) y el resto de la documentación relacionada con el programa estará disponible en www.cein.es y en www.pamplona.es .<br>▪ Las solicitudes se cumplimentarán y enviaran a través del formulario antes mencionado. Los solicitantes autorizan a CEIN para que, una vez realizada la solicitud en la forma descrita, la descargue en formato PDF y utilice dicha información para la evaluación del proyecto, así como para uso exclusivo de las acciones de CEIN dentro de este programa de DendaNaiz - Soy Comercio.<br>▪ CEIN, bajo Comité Técnico de Valoración de Proyectos, realizara la selección de los potenciales proyectos.<br>▪ Se seleccionarán un máximo de 20 ideas de negocio. | ▪ Eskabideak aurkezteko epea 2019ko otsailaren 8an hasiko da, eta otsailaren 28an amaituko.<br>▪ Eskabidea egiteko formularioa (I. Eranskina) eta programari lotutako gainerako agiriak eskuragarri daude www.cein.es eta www.pamplona.es webguneetan.<br>▪ Eskabideak bete beharko dira, eta aipatu formularioaren bidez bidali. Eskatzaileek eskabidea behar bezala aurkezteak berekin dakar CEINi baimena ematea eskabidea PDF formatuan deskargatu eta bertako informazioa proiektua ebaluatzeko erabil dezan, eta baita ere, Denda Naiz - Soy Comercio programaren barruan soilik CEINek egiten dituen ekintzetarako erabil dezan.<br>▪ CEINek, Balorazio Batzorde Teknikoaren laguntzaz, hautatuko ditu geroan gauzatu litezkeen proiektuak.<br>▪ Gehienez ere 20 negozio-ideia hautatuko dira. |
| La selección o denegación de los candidatos se comunicará de forma expresa por parte de CEIN a cada solicitante la semana siguiente del cierre | CEINek jakinaraziko dio berariaz hautagai bakoitzari hautatua edo baztertua izan den, hautagaiak aurkezteko epea noiz amaitu eta |

| | |
|---|---|
| de la presentación de candidaturas. | hurrengo astean. |
| **OCTAVA: Criterios de selección de proyectos** | **ZORTZIGARRENA: Proiektuak hautatzeko irizpideak** |
| CEIN atenderá todas las solicitudes que presenten al programa Denda Naiz - Soy Comercio.<br>La preselección de proyectos la realizará un Comité Técnico de Valoración de Proyectos de CEIN bajo los siguientes criterios de selección:<br>▪ **Equipo Promotor**: Experiencia, formación, motivación y competencias. Se valorará hasta un 30%.<br>▪ **Proyecto empresarial**: Sector, innovación o diferenciación, disponibilidad de local, grado de madurez y pre-viabilidad económica. Se valorará hasta un 35%.<br>▪ **Aporte a la ciudad**: Cómo aporta el proyecto a la revitalización de la ciudad. Se valorara hasta un 35%. | Denda Naiz - Soy Comercio programara aurkeztutako eskabide guztiak aintzat hartuko ditu CEINek.<br>CEINen Balorazio Batzorde Teknikoak proiektuen aurre-aukeraketa eginen du, honako hautaketa-irizpide hauekin bat:<br>▪ **Talde sustatzailea**: Eskarmentua, prestakuntza, motibazioa eta gaitasunak. Gehienez balorazioaren % 30 izanen da.<br>▪ **Enpresa-proiektua**: Sektorea, berrikuntza edo bereizgarritasuna, areto bat erabilgarri edukitzea, heldutasun-maila eta aldez aurretiko bideragarritasun ekonomikoa. Gehienez balorazioaren % 35 izanen da.<br>▪ **Ekarpena hiriari**: Zein neurritan laguntzen dion hiriaren biziberritzeari. Gehienez balorazioaren % 35 izanen da. |
| El Comité elegirá un máximo de **20 proyectos** participantes. | Batzordeak **20 proiektu** hautatuko ditu gehienez. |
| **NOVENA: Criterios de exclusión** | **BEDERATZIGARRENA Proiektuak baztertzeko irizpideak** |
| Serán motivo de que se declare la suspensión del disfrute del programa Denda Naiz - Soy Comercio y de todos los servicios inherentes a esta acción las siguientes circunstancias:<br>▪ El incumplimiento por parte de los promotores de cualquiera de las condiciones establecidas en estas bases.<br>▪ La no viabilidad técnica, económica o comercial del proyecto determinada de manera firme por CEIN en su fase de tutorización.<br>▪ Otras causas ajenas a la voluntad e intencionalidad del beneficiario que motiven el abandono siempre justificado del proyecto. | Erabiltzaileek Denda Naiz - Soy Comercio programan parte hartzeari utzi beharko diote, bai eta ekimenaren berezko zerbitzuak erabiltzeari ere, honako inguruabar hauetakoren bat ematen bada:<br>▪ Proiektuen sustatzaileek ez betetzea oinarri hauetan ezarritako betekizunen bat.<br>▪ CEINek erabaki irmoa hartzea proiektuaren bideragarritasun ezaren inguruan, alderdi tekniko, ekonomiko edo komertzialak tartean.<br>▪ Proiektua bertan behera uzteko arrazoiak egotea, betiere arrazoi horiek onuradunari egoztekoak ez badira; edozein kasutan, justifikazioa aurkeztu beharko da. |

## DÉCIMA: Protección de datos

## INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCIÓN DE DATOS:

**Responsables del tratamiento:**

CENTRO EUROPEO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE NAVARRA, SL (en adelante, CEIN)

Pol. Mocholi Plaza Cein nº 5 – 31110 Noáin (Navarra)

Correo electrónico: lopd@cein.es

AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

Plaza Consistorial 1, 31001 Pamplona (Navarra)

Correo electrónico: proecciondedatos@pamplona.es

**Finalidades:** Poder gestionar su participación en la convocatoria en el programa "Denda Naiz – Soy Comercio" Se podrán utilizar y publicar los datos de los proyectos con el fin de ser difundidos en los medios de comunicación propios de los convocantes u otros medios de terceros (redes sociales), incluido cualquier soporte audiovisual que fueran recabados en el marco del programa.

CEIN podrá hacer uso de los datos de los participantes para poder ofrecerles otros servicios relacionados con la actividad de la entidad.

**Legitimación:** Consentimiento expreso.

**Destinatarios:** Autoridades reguladoras y de control, organismos públicos competentes, Jueces y Tribunales. Y terceros proveedores de servicios que tienen acceso a sus datos personales.

CEIN hace uso de las redes sociales estadounidenses Facebook y Twitter, a quien se realiza una transferencia internacional de datos, de tipo analíticos y técnicos en relación con el Sitio Web siendo en sus servidores en los que CEIN trata los datos que, a través de ellas, los usuarios, suscriptores o navegantes entregan o comparten con esta y está sujeto su uso al cumplimiento de las condiciones establecidas por las mismas como titulares del servicio de red social. Cuando el usuario accede o utiliza la página oficial de CEIN en Twitter Y

## HAMARGARRENA: Datuen babesa

## DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO ARGIBIDEAK:

**Tratamenduaren arduradunak:**

NAFARROAKO ENPRESEN ETA BERRIKUNTZAREN EUROPAKO ZENTROA SM (aurrerantzean, CEIN)

Mocholi poligonoa, Cein plaza, 5, 31110, Noain (Nafarroa)

Helbide elektronikoa: lopd@cein.es

IRUÑEKO UDALA

Udaletxe plaza 1, 31001 Iruña (Nafarroa)

Helbide elektronikoa: proecciondedatos@pamplona.es

**Helburuak:** Denda Naiz – Soy Comercio programaren deialdian parte hartzeko kudeaketa egin ahal izatea. Proiektuen datuak erabili eta argitaratzen ahalko dira deitzaileen hedabide propioetan zein beste hirugarren batzuenetan (sare sozialak) hedatzeko helburuarekin, barne hartuta programaren testuinguruan jasotako ikus-entzunezko edozein euskarritakoak.

CEINek parte-hartzaileen datuak erabiltzen ahalko ditu horiei entitatearen jarduerarekin lotutako beste zerbitzu batzuk eskaintzeko.

**Legitimazioa:** Berariazko baimena.

**Hartzaileak:** Agintaritza erregulatzaileak eta kontrolekoak, erakunde publiko eskudunak, Epaileak eta Auzitegiak. Eta zerbitzuen beste hornitzaileak, datu pertsonaletara sarbidea dutenak.

CEINek Facebook eta Twitter sare sozial estatubatuarrak erabiltzen ditu, eta horiei datu analitiko eta teknikoen transferentzia internazionala egiten zaie, Webgunearekin lotuta. CEINek horien zerbitzarietan tratatzen ditu sareen bitartez erabiltzaileek, harpidedunek zein nabigatzaileek CEINi eman edo harekin partekatzen dituzten datuak, eta horien erabilera lotuta dago lehenengo horiek ezarritako baldintzei, sare sozialen zerbitzuaren titular diren heinean. Erabiltzaileak CEINen Twitter zein Facebookeko orri ofizialera sartu edo horiek erabiltzen dituenean, erabilera-baldintzetan ezarritakoa betetzeko baimena

| | |
|---|---|
| Facebook, manifiesta su consentimiento y aceptación del cumplimiento de lo establecido en las condiciones de uso. | ematen duela eta onartzen duela adierazten du. |
| **Derechos**: El afectado podrá revocar en cualquier momento su consentimiento, así como ejercitar, los derechos de oposición, acceso, portabilidad, rectificación, limitación, supresión de datos y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado de sus datos, remitiendo una comunicación por escrito a los Responsables a las direcciones indicadas. | **Eskubideak:** Interesdunak une orotan errebokatu ahalko du emandako baimena, bai eta datuen kontra egiteko, datuetara sartzeko, eramangarritasuna egiteko, zuzentzeko, mugatzeko eta ezabatzeko eskubideak erabili ere, betiere datuen tratamenduetan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko. Horretarako idatzizko komunikazio bat bidali beharko zaie, arduradunei, aipatu helbideetara. |
| **Más información:**<br>http://www.pamplona.es/VerPagina.asp?IdPag=1755<br>http://www.cein.es/aviso-legal/ | **Argibide gehiago, hemen:**<br>http://www.pamplona.es/VerPagina.asp?IdPag=1755<br>http://www.cein.es/aviso-legal/ |

## ANEXO I: SOLICITUD PROGRAMA DENDA NAIZ-SOY COMERCIO 2019
## I. ERANSKINA: ESKABIDEA, DENDA NAIZ – SOY COMERCIO 2019 PROGRAMARAKO

☒ Al presentar esta solicitud, acepta las "Bases Programa Denda Naiz-Soy Comercio

El comité seleccionador de proyectos se reserva el derecho de solicitar la exposición presencial de los proyectos, como complemento a esta solicitud.

**Aviso:** Los solicitantes deben rellenar todos los apartados de esta solicitud. Se deben respetar los formatos señalados: tipo de letra (verdana 8pt), longitud del texto respetando el espacio delimitado. La información aportada debe ser concreta y breve respondiendo a los datos solicitados.

☒ Eskabide hau aurkeztearekin batera, Denda Naiz – Soy Comercio 2019 programaren oinarriak onartzen dituzu.

Proiektuak hautatuko dituen batzordeak beretzat gordetzen du proiektuak aurrez aurre azal ditzatela eskatzeko eskubidea, eskabide honen osagarri gisara.

**Oharra:** Eskatzaileek eskabide honen atal guztiak bete behar dituzte. Gorde behar dira formatuko kontu hauek: letra mota (verdana 8pt) eta testuaren luzera, zedarritutako espazioarekin bat. Emandako argibideek zehatzak eta laburrak izan behar dute, eta eskatutako datuei egokitu.

**Nombre del proyecto:**
(Será el nombre por el que se conocerá tu proyecto durante su participación en el programa)

**Proiektuaren izena:**
(Izen horrekin emanen da ezagutzera proiektua, programak iraun bitartean)

| |
|---|
| |

**Descripción de la idea de negocio :**
Explica de forma breve en qué consiste tu idea de negocio (máximo 2 líneas)

**Negozio-ideiaren deskribapena:**
Azaldu ezazu labur nolakoa den zure negozio-ideia (2 lerro gehienez ere)

| |
|---|
| |

| EQUIPO PROMOTOR DEL PROYECTO<br><br>PROIEKTUAREN TALDE SUSTATZAILEA | Socio 1<br><br>1. bazkidea | Socio 2<br><br>2. bazkidea | Socio 3<br><br>3. bazkidea |
|---|---|---|---|
| Nombre/Izena | | | |
| Apellidos/Abizenak | | | |
| Sexo/Sexua | | | |
| Edad/Adina | | | |
| Tfno Contacto/Harremanetarako tel. | | | |
| E-mail/Helbide elektronikoa | | | |
| DNI/Pasaporte - NAN/Pasaportea | | | |
| Localidad de Empadronamiento/Errolda-herria | | | |
| Estudios/Ikasketak | ☐Básicos/ Oinarrizkoak<br><br>☐F.P./Bachillerato/ LH/Batxilergoa/<br><br>☐Universitarios /Unibertsitatekoak/<br><br>☐Master, postgrado, doctorado/Masterra, graduondoa, doktoretza | ☐Básicos/ Oinarrizkoak<br><br>☐F.P./Bachillerato/ LH/Batxilergoa/<br><br>☐Universitarios /Unibertsitatekoak/<br><br>☐Master, postgrado, doctorado/Masterra, graduondoa, doktoretza | ☐Básicos/ Oinarrizkoak<br><br>☐F.P./Bachillerato/ LH/Batxilergoa/<br><br>☐Universitarios /Unibertsitatekoak/<br><br>☐Master, postgrado, doctorado/Masterra, graduondoa, doktoretza |
| Situación laboral actual/Egungo lan-egoera | ☐Ocupado/Lanean<br><br>☐Desempleado / Langabea | ☐Ocupado/Lanean<br><br>☐Desempleado / Langabea | ☐Ocupado/Lanean<br><br>☐Desempleado / Langabea |
| ¿Has creado anteriormente alguna empresa?/Sortu al duzu lehen ezein enpresarik? | ☐ SI/BAI ☐ NO/EZ | ☐ SI/BAI ☐ NO/EZ | ☐ SI/BAI ☐ NO/EZ |

## Información adicional sobre el equipo promotor del proyecto:

De cada uno de los socios del proyecto, describe brevemente su formación, experiencia y cuál será su rol en el proyecto (máx. 12 líneas)

## Informazio gehigarria proiektuaren talde sustatzaileari buruz:

Eman proiektuaren bazkide bakoitzaren berri: labur azaldu haien prestakuntza, esperientzia eta proiektuan bete behar duten zeregina (12 lerro gehienez ere)

| |
|---|
| |

**Sector y ubicación del negocio:**
Indica el sector al que se destina el negocio (textil, alimentación, arte, deporte, música, comunicación, etc…).
Indica también la dirección del local si ya lo tienes o cuál crees que sería una buena ubicación para tu negocio en la ciudad y por qué (máx. 6 líneas).

**Negozioaren sektorea eta kokalekua:**
Adierazi negozioa zein sektoretakoa izanen den (ehungintza, elikadura, artea, kirola, musika, komunikazioa, etab.). Halaber, adierazi aretoaren helbidea (aretorik izanez gero) edo hiriko zein leku iruditzen zaizun egokiena zure negoziorako, eta zergatik (6 lerro gehienez ere)

| |
|---|
| |

**Características del proyecto. Innovación / diferenciación:**
Describe las características principales de tu proyecto y explica los aspectos que consideras más innovadores o diferenciadores. Justifícalos en base a la situación actual de tu competencia. ¿En qué te diferenciarás de tu competencia? (Máx. 12 líneas)

**Proiektuaren ezaugarriak. Berrikuntza / bereizgarritasuna:**
Azaldu proiektuaren ezaugarri nagusiak eta berritzaileenak edo bereizgarrienak iruditzen zaizkizun alderdiak. Justifikatu alderdi horiek, zure lehiakide izan daitezkeen enpresen egungo egoera aintzat hartuta. Zerk bereiziko zaitu lehiakideengandik? (12 lerro gehienez ere).

| |
|---|
| |

**Situación actual del proyecto:**
Indica en qué fase se encuentra tu proyecto (idea, desarrollo, puesta en marcha...), así como las acciones que ya has realizado dirigidas a su puesta en marcha. (máx. 12 líneas).

**Proiektuaren egungo egoera:**
Adierazi zein fasetan den zure proiektua (asmoan, garapenean, abiatuta...), bai eta abian jartzeko jada gauzatutako ekintzak ere. (12 lerro gehienez ere)

**Generación de Valor:**
Indica y justifica cómo vas a contribuir a revitalizar la ciudad o el tejido comercial urbano con tu proyecto. ¿Qué necesidades actuales del entorno ayuda a cubrir? (máx. 6 líneas)

**Balio gehitzea:**
Azaldu eta arrazoitu nola lagunduko dion zure proiektuak hiriaren edo merkataritza-ehunaren biziberritzeari. Inguruko gaur egungo zer behar asetzen lagunduko du? (6 lerro gehienez ere)

| **Motivación para participar:** | **Zerk bultzatu zaitu parte hartzera?:** |
| --- | --- |
| ¿Qué esperas del programa de Denda Naiz?, ¿Cómo crees que puede ayudarte?, ¿En qué aspectos de tu proyecto necesitas que te apoyen?<br>Detalla brevemente tus motivaciones para ser uno de los proyectos seleccionados: qué te atrae del programa, cómo encaja con tu idea de negocio y por qué consideras que debes ser un proyecto elegido. (máx. 12 líneas) | Zer espero duzu Denda Naiz programatik?, zure ustez, zertan laguntzen ahal dizu?, proiektuaren zein alderditan behar duzu laguntzarik?<br>Azaldu labur zerk bultzatu zaituen proiektu hautatuetako bat izan nahi izatera: programatik zerk erakarri zaituen, nola txertatzen den programa zure negozio-ideian eta zergatik uste duzun aukeratu behar dugula zure proiektua (12 lerro gehienez ere) |

| |
| --- |
| |